

3DIRA PROIEKTUA

1.eguna

Martxoan 4. Mailako neska-mutilak 3DIRA proiektuan parte hartu dugu.

Bi egunetan egin genuen.

Lehenengo egunean, eskolara etorri ziren Elorrietako Erreka Mari ikastetxeko bi ikasle eta bi irakasle gurekin lana egiteko.

Aneren ipuina kontatu ziguten, eta guk, taldeka, ipuina antzestu genuen. Ondoren Anerentzat opari bat marraztu behar izan genuen. Gehien gustatu zitzaigun marrazkia bozkatu genuen eta Elorrietakoek ekarritako materialekin, kartoiak, plastilinak, artilea, ... Aneren opariaren maketak egin genituen.



Elorrietako ikasleek maketen argazkiak atera zituzten eta esan ziguten 3Dko inprimagailuan egingo zituztela.





Talde bakoitzak gure maketa egiten aritu ginen.

4. mailako neska-mutilak